

KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat aurrera eramateak dakartzan kostu guztien definizioa da. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dutenez, gure enpresak gai izan beharko da gastu horiei aurre egiteko. Honi lotuta, kostuen egituren ezaugarriak, kostu finkoak, kostu aldakorak, eskalako ekonomiak eta hedadura-ekonomiak dira.

Gure kostuen egitura zehazki azaltzea ere beharrezkoa izango da gerora gastuak irabaziak baino handiagoak ez izateko. Horren baitan, orain hauek azalduko ditugu:

KOSTU FINKOAK

- Takilak muntatzeko kontratatuko ditugun langileei 1100€ ordainduko diegu hilabetero. Bi pertsona hasiko dira gurekin lanean baina enpresa handitzen doan einean jendea kontratatzen joango gara.
- Hilabeteko publizitatea egiten lagunduko digun Markelen lagunari 1000€ ordainduko dizkiogu.
- Lanerako tresneri gehienak guztion etxeetatik hartuko ditugu, baina batzuk erosi edo alokatu egin beharko dira, gutxi gorabehera, hauentzako aurrekontua urtean 450€-koa izango da.
- Lagunaro-ri aseguruarengatik ere ordaindu beharko diegu, hilabetean 800€ guztiarengatik.



KOSTU ALDAKORRAK:

- Gasolina, depositu osoa betetzeak 70€ kostatuko digu gutxi gorabehera.
- Sirmet eta Iri-be enpresak dira materiala erosiko diegun enpresak, hauei 10 kiloko 30 € ordainduko dizkiegu. Beharraren arabera material gehiago edo gutxiago eskatuko diegu eta horren baitan ere deskontuak egingo dizkigute.
- Tailerreko argia, ura... hilabetean gastatzen dugunaren arabera izango da baina aurreratatu dezakegu 200€. Tailerrarengatik, ordea, hilabetero 1200€ ordainduko dugu.

Kostuak bultzatutako negozio-eredua izango da gurea, hau da, kostuak minimizatzen bideratutakoa kostu-egitura ahalik eta murriztuen mantentzen bideratua. Honi lotuta, gure irabaziaz takiletik lortuko ditugu. Alde batetik, takilen salmentatik lortuko dugu dirua, hau izango da irabazi-iturri handiena eta garrantzitsua eta bestetik takilen mantentzeak.

Enpresaren helburua lehenengo hilabetean 300 bezerorengana iristea izango da. Hilabete horretan bezero guztiei takilak saldu baldin badizkiegu, gure gastua bezero bakoitzari saltzen diogun produktuarengatik (takilak) **340€** izango da, hau da, takilak sortzen ordaindu beharko ditugun gastuak 340€ dira. Aurrekoa berraituz, beste gastu guztiak kontuan izanda: tailerra, lanerako materiala/tresneria, takilak muntatzen dituzten langileen soldata eta publizitatea; gutxienez gastuetan 110.000€ ordainduko beharko dugu.

Enpresaren mozkinaren inguruan, kalkuluak atera ondoren, irabazi guztiak takilak saltzeagatik 120.000€ ingurukoa izango da (takila bakoitzeko 400€ gutxi gorabehera) eta kostu guztiak 110.000€ -koak izango direla kontuan harturik, eragiketak eginez 9000€ euro izango dira irabaziaz eta taldekide bakoitzarentzat 2250€ soldata. Hurrengo hilabetei dagokienez, gero eta diru gehiago joango gara irabazten, takila gehiago sortuko ditugulako bezero berriak lotu hala eta mantenuengandik ere dirua lortuko baitugu.

$120.000 - 110.000 = 10.000 \text{ €}$ ----- taldekide bakoitzak: 2250€ ko irabazia

